

BERRI OROKORRAK

2019ko azaroaren 15ean 10. zenbakia

1.-KMK 2020, arropa salmentarako laguntza eskaera!

2020. urtean Villabona-Zizurkilgo Zubimusu Ikastolak antolatuko du Kilometro eguna.

Urtero bezala, herriz-herriz Kilometroetako arropa salmenta egiten da eta Zubimusu ikastolak, Usurbilen, **azaroaren 24an** ospatuko den Erle egunean arropa saltzeko 4 boluntario eskatzen ditu. Postua plazan jarriko da eta ordutegia **10:30etik 14:00ak** arte izango da. Izena ematea, **azaroaren 18ra** bitarte egin daiteke [FORMULARIO HAU](#) betez edota idazkaritzara deituz. Animatu!

2.-Xiberoko ikastolen aldeko otarrak.

2003an hasirik, Xiberoko Ikastoleek, gabonetarako, otarreak eskaintzen dituzte, hurrengo hiru helburu nagusi hauekin:

- 1. Ikastolaren finantzazioan laguntzea.** Seme-alabek euskaraz ikasteagatik, gurasoek finantzazioaren %30 jartzen dute eta administrazioek, %20. Gainerako %50, hau bezalako gizarte ekimenen bidez eskuratzen dute. Salmenta honekin %5 estaltzea espero dute; beraz, gure erosketa garrantzitsua da Xiberoko Ikastoleentzat.
- 2. Euskararen erabilera haunditzea Xiberon eta bereziki ikastoleetan :** pasa den urteko salmentari esker, Xiberon dituzten bi ikastoletarako baliabideak hobetu dituzte euskararen presentzia areagotzeko.
- 3. Tokiko ekoizleak eta produktuak ezagutaraztea,** Zuberoko etxalde eta enpresetako ekoizpenak dituzten otarreak eskainiz:

AHUZKI OTARREA

Ardi gazta zatia (450 gr)
Ahate gibela (125 gr)
Gurinezko gaileta paketea (150 gr)
Eztia (500 gr)
Euskal xerriki patea (200 gr)
Euskal xerriki odolkia (200 gr)

PREZIOA: 40 €



Ahuzki

40 €

IRATI OTARREA

Ardi gazta zatia (450 gr)
Ahate gibela (125 gr)
Gurinezko gaileta paketea (150 gr)
Eztia (500 gr)
Txahalki kontserba piperrekin, berotu eta arrozarekin edo patatekin jateko prest (640 gr)
Euskal xerriki lukainkak (400 gr)

PREZIOA: 52 €



Irati

52 €

Zuk ere elkartasunez Xiberoko Ikastolak lagundu, gaur erein Euskararen aldeko haziak, bihar loratzen ikusteko.

Egin zure eskaera abenduaren 1a baino lehen, elasarte@udarregi.eus postara mezua idatziz.

3.-Iparraldeko ikastolen-egutegiak salgai.

Iparraldeko ikastolek, egin ohi duten bezala, 2020ko egutegia (**Seaska**) salgai jarri dute. Erosi nahi izanez gero, **Ikastolako eta Haur Eskolako idazkaritzetan** egongo dira **eskuragarri**. Ale bakoitzaren salneurria **4 eurokoa** da.

4.-Errigora.

"Euskarari puzka". ERRIGORA egitasmoren udazkeneko kanpaina martxan da. Nafarroa hegoaldeko tokiko produktuak dituzten hiru saski eskaintzen dira; Beltza, berdea eta zuria.

Eskaerak azaroaren 20ra bitarte egin halako dira.

Otarrak ikastolako idazkaritzan egongo dira ikusgai datorren astetik aurrera. **Eskaerak idazkaritzan** bertan egin daitezke (943361216) **edota Haur Eskolan** (943374061). Ordainketa otarra jasotzeko momentuan egingo da.

5.- Eskia denontzat 2020.

Ohitura denez, Ikastolak urtero bezala, neguko giroa aprobetxatuz, LH 5. mailatik gorako ikasleei zuzenduriko eski-aldia antolatu du. Aurten asteburu berean bi irteera eskainiko dira: egun berean joan-etorrikoa eta asteburu osokoa.

EGUN BEREAN JOAN-ETORRIA	ASTEBURU OSOA
<p>NOIZ: 2020ko urtarrilaren 25ean. NORA: Candanchu-ra. MODALITATEA: ESKI ALPINOA eta SNOWA. SALNEURRIA: 112 euro Prezioan honako zerbitzuak sartzen dira: - Autobusez bidaia. - Ekipamenduaren alokairua: botak, bastoiak, kaskoa, eski edo snow-taulak (aukeraren arabera). - Arduradunak ikasleak zaintzeko eta 2 orduko eski-ikastaroa euskaraz. - Eguneko eski-asegurua. - Eguneko forfaita</p>	<p>NOIZ: 2020ko urtarrilaren 25etik 26ra. NORA: Candanchu-ra MODALITATEA: ESKI ALPINOA eta SNOWA. SALNEURRIA: 210 euro Prezioan honako zerbitzuak sartzen dira: - Autobusez bidaia. - Ekipamenduaren alokairua: botak, bastoiak, kaskoa, eski edo snow-taulak (aukeraren arabera). - Arduradunak ikasleak zaintzeko eta 2 orduko eski-ikastaroa euskaraz bi egunetan. - Bi eguneko eski-asegurua. - Bi eguneko forfaita. - Mantenu osoa Villanuan.</p>

OHARRA: Eski-estazioan bertan gertaturiko istripuak aseguratutik daude, estaziotik kanpo gertaturikoak Gizarte Segurantzatik bideratuko dira. Bestalde, izen-ematea egiteak, komunak diren gastuei aurre egitea suposatzen du, nahiz eta ondoren atzera egin (autobusaren gastuak, monitoreenak, etab.).

Izena eman duten familiekin aurrerago bilera bat egingo da dena zehazteko eta zalantzak argitzeko. Bi irteerak egiteko gutxieneko taldea osatu beharko da.

ORDAINKETA: Izen-ematearekin batera aukeratutako irteeraren kostua bere **osotasunean ordaindu** beharko da Nafarroako Rural Kutxan, ES80 3008 0259 1921 5462 6820 (Kontzeptuan ikaslearen izen-abizenak) **azaroaren 22a baino lehen**. Ez da idazkaritzan bankuko ziurtagiria aurkeztu beharko.

IZEN-EMATE EPEA: AZAROAREN 8tik 22ra.

IZEN-EMATEA: albiste-buletinako [FORMULARIO hau](#) betez azaroaren 22a baino lehen. **Aurten, ez da idazkaritzara ordainketa egiaztagiririk ezta izen-ematerik ekarri beharko.**

6.-Hitzaldia: Hitz-aho guraso elkarteak eta Udaleko parekidetasun sailak antolatuta.

Noiz: azaroaren 21ean 17:00etan.

Non: DBHko eraikinean (eraikin gorria)

Hizlaria: Harremanitz

Familiak ere jendarte parekide baterantz.

"Jendarte parekide bat lortzerantz, lehenik eta behin, kontzientzia hartu behar dugu gaur egungo jendarte ereduak genero eta sexualitate anitzen errealitateak non kokatzen dituen. Horretaz gain, hezkuntzatik badaukagu zer egin berdinen arteko jendarte baterantz. Familiek ere hezkuntza eragile izanik, badaukate honetan zer esanik eta eginik. Familiak, haur eta nerabeen hezkuntza parekide baterantz begira jar daitezke. Horretaz eta gehiagoz solas gaitzke hitzaldi honetan."

OHARRAK ETAPAKA



HE

Ez dago berririk.



HH

Ez dago berririk.



LH

1.-LH 2ko ikasleen irteera.

Datorren ostegunean, azaroak 21, 2. mailako ikasleek Pasaiara egingo dute egun osoko irteera eta Albaola museoa bisitatuko dute.

2.-Robotika LH 4ko, LH 5eko eta LH 6ko ikasleei zuzenduta.

Ikastolen elkarteko aisialdi-taldeak 4., 5. eta 6. mailako ikasleei zuzendutako udaleku irekiak antolatu ditu neguko oporretan.

Udaleku ireki horren **helburuak** honakoak dira: ondo pasatzea, pentsaera konputazionala lantzea, teknologia berriak euskaraz bitzeko aukera ematea, teknologia berrien bidez sormena sustatzea, interes bereko gazteen arteko komunikazioa sustatu eta programazioa eta robotikaren mundua ezagutzea.

Jarduerak: blokeko programazioaren oinarriak ezagutu.

Hardwarearekin lan egin.

Taldeka, proiektu bat garatu (proiektua gazteek aukeratuko duke).

Dronak gidatu.

Proiektuen aurkezpena egin.

*Gutxieneko taldea 10eko izango da.

Noiz: abenduaren 23, 26 eta 27an, goizeko 9:00etatik 13:00era.

Non: ikastolan.

Izen-ematea: azaroaren 15etik abenduaren 13ra, ikastolako idazkaritzan.

Prezioa: ikastolako ikasleentzat 72€.



DBH

Ez dago berririk.